

Apaizen estamentuak



Apatzak

Elizgizonek —klero sekularrekoek (gotzainak, presbiteroak, diakonoak) zein klero erregeladunekoek (monjeak)— ez zuten talde homogeenorik osatzen.

Gotzain-hirietako (Iruñea, Baiona...) buruak edo monasterio handietako (Leire, Iratxe, Fitero, Oliba...) abadeak ez ziren oso ondo moldatzen kleroko gainerako kideekin, hiribilduetan eta herri txikietan parroketako eliztarrez arduratzen zirenekin bereziki, lehen estamentu murriz hartan askoz prestakuntza intelektual handiagoa eta askoz diru gehiago baitzuten. Baina, oro har, pribilegio handiko taldea zen elizjendearena, ez baitzuten zergarik ordaindu behar, eta beren jurisdikzio berezia zuten, eliz ordezkariak elizako auzitegietan baino ez baitzituzten epaitzen.